## SOCIEDAD ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

### 1. IZENBURUA.

#### 1. Artikulua

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI, AS.R.P..G.00274 Erregistro-Zk.duna, 1947ko abuztuaren 9(e)an eratua eta 1966ko apirilaren 30ean inskribatua, Donostian helbideratua, irabazi asmorik gabeko elkartea da eta berriki Elkarteko estatutuak aldatu ditu Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan Legean ezarritakoari jarraiki, 2012ko martxoaren 30ean egindako Ezohiko Biltzar Nagusiak halaxe erabaki baitzuen.

Elkarte aipatuaren jarduerak arautzeko ardatzak honako hauek izango dira: Elkarteei buruzko Lege aipatuak, egungo Estatutuak (Legearekin kontraesanik sortarazten ez badute), gobernu-organoek onargarriro hartzen dituzten erabakiak (Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onets ditzakeen arau-xedapenak (izaera osagarria soilik izango dutenak).

#### 2. Artikulua

Elkarte hau erakunde iraunkor eta burujabea da eta izaera kultural eta zientifikoa du gehien-bat; beraz, irabazi-asmorik gabeko elkartea da.

#### 3. Artikulua

Aipatutako xedea betetze aldera, Elkarteak ondoko helburuak lortzea izango du helmuga:

- Natur eta Giza Inguruneari berez dagozkion kontuak eta arazoak, bai alderdi hutsean bai alderdi aplikatuan, ikertu eta aztertzea.
- Ezaupide horiek eta egindako ikerketen emaitzak ezagutzera ematea, besteak beste:
    - Turismo iraunkorrera zuzendutako jarduerak.
    - Teknologia berriak sustatzea.
    - Euskara eta hizkuntza gutxituak

## ESTATUTOS DE LA SOCIEDAD ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

### CAPITULO 1.

#### Artículo 1.

Los presentes Estatutos de la Asociación sin ánimo de lucro, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA – SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI, de Donostia-San Sebastián, Nº de Registro AS..R.P.G.00274, constituida con fecha 9 de agosto d e 1947, e inscrita con fecha 30 de abril de 1966, han sido modificados de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación, por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria celebrada con fecha 30 de marzo de 2012.

Dicha Asociación se regirá por los preceptos de las citadas Leyes de Asociaciones, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio.

#### Artículo 2.

Esta Asociación constituye una entidad permanente e independiente, de carácter eminentemente cultural y científica, sin fines lucrativos.

#### Artículo 3.

Para el cumplimiento de dicho objeto la Asociación tenderá a la consecución de los siguientes fines:

- La investigación y conocimiento de problemas y cuestiones propias del Medio Natural y Humano, tanto en su vertiente pura como aplicada.
- La divulgación de tales conocimientos y de los resultados de las investigaciones realizadas, incluyendo entre otros:
    - Las actuaciones encaminadas al turismo sostenible.
    - El fomento de las nuevas

sustatzea.
- Eskola- eta unibertsitate-eremuetan eta etengabeko prestakuntzako eremuetan heziketa bultzatzea.
- Lan munduan sartu eta gizarteratzeko programak.
- Komunikabideetan aplikatuta, I+D garatzea, bai eta Gizarteari loturik dauden jakintza guztiak ere.
- Oroimenaren eta oroitzaren testuinguruaren barruan idatzizko eta ahozko iturriak berreskuratzearen aldeko ikerketak egitea zientzia-metodologietan oinarrituta.
- Halaber, AZEaren helburuak garatzearekin bat datozen mota guztietako jarduerak ere bultzatzea.

- Arkeologia, Etnografia eta Natura Ondarea babestu eta zaintzea:
  - Biodibertsitatea babeste aldera, lurraldea zaintzea, jabetza publikokoa zein pribatukoa izan.
  - Ingurumen, Kultur eta Giza Ondarearen alorretan nazioarteko lankidetza bultzatzea.
  - Landa Ingurunea garatzeko orduan, lurraldearen iraunkortasuna eta Biodibertsitatearen kontserbazioa kontuan izatea, horien arteko oreka lortuz.
  - Kultur Ondarea birgaitu eta zaharberritzea.
  - Halaber, AZEaren helburuak garatzearekin bat datozen mota guztietako jarduerak ere bultzatzea.

**4. Artikulua**

Aipatutako helburuak erdiesteko asmoz, ezarrita dauden legezko betebeharrekin bat eginik, ondoko jarduerak antolatuko dira:

a) Ikerketa zientifikoari dagokionez, egokitzat hartutako lan-ildoak ireki eta Atalak osatzen dituzten taldeen barruan aurrera eramango dira, eskura dauden baliabideen eta pertsonalaren bidez.

tecnologías.
- El fomento y divulgación del euskara y lenguas minorizadas.
- La formación en los ámbitos escolares, universitarios y de formación continua.
- Programas de inserción laboral y reinserción social.
- Desarrollo de I+D, aplicadas a los medios de comunicación, así como a todas aquellas disciplinas afines a la Sociedad.
- La investigación mediante metodologías científicas en pro de la recuperación de las fuentes escritas y orales en el contexto de la historia de la memoria y el recuerdo.
- Así como de todas aquellas otras actuaciones en consonancia con el desarrollo de los objetivos de la SCA.

- La protección y conservación del Patrimonio Arqueológico, Etnográfico y Natural, incluyendo entre otros:
  - La custodia del territorio, sea de titularidad pública o privada de cara a la protección de la Biodiversidad.
  - La cooperación internacional en materias de Medio Ambiente, Patrimonio Cultural y Humano.
  - El desarrollo del Medio Rural en equilibrio con la sostenibilidad del territorio y la conservación de la Biodiversidad.
  - La rehabilitación y restauración del Patrimonio Cultural.
  - Así como de todas aquellas otras actuaciones en consonancia con el desarrollo de los objetivos de la SCA.

**Artículo 4.**

Para la consecución de dichos fines se llevarán a cabo, previo el cumplimiento de los requisitos legales establecidos, las siguientes actividades:

a) En relación a la investigación científica, se abrirán y desarrollarán las líneas de trabajo que se consideren oportunas, con los medios y personal disponibles, en el seno de los grupos que constituyen las denominadas Secciones.

b) Ezaupideak zabaldu eta hedatzeari dagokienez, helburu horren alde egiten duten baliabide guztiak erabiliko dira -aldizkako eta noizean behingo agerkariak, biltzarrak, erakusketak, hitzaldiak, etb. -, komunitate zientifikoari zein jendeari oro har zuzenduta; «Munibe» aldizkaria, berriz, gizarte aurreko adierazpide nagusia izango da.

c) Ondarea babestu eta zaintzera begira, hartubeharreko neurriak hartuko dira, iraunkorrak edota aldi baterakoak, pertsonen eta erakunde publiko eta pribatuen ororen lankidetzaz.

b) En el plano de la divulgación y difusión de conocimientos, se hará uso de todos aquellos medios que contribuyan a dicho fin – publicaciones periódicas o eventuales, organización de congresos, exposiciones, conferencias, etc. – orientados tanto al resto de la comunidad científica, como al público en general, siendo la revista «Munibe» su principal medio de manifestación social.

c) En cuanto a la protección y conservación del Patrimonio, se emprenderán las acciones necesarias y permanentes o temporales, en colaboración con las personas e instituciones públicas y privadas que sean precisas.

**5. Artikulua**

Azaldutako helburu eta jarduerez gain, horiek guztiak betetzen direla egiaztatzeko, Elkarteak bere esku izango du:

a) Mota guztietako ekonomi jarduera legalak garatzea, Elkartearen ohizko funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabideak biltzeko helburuz.

b) Mota guztietako ondasunak eskuratu eta edozein tituluagatik edukitzea, hala nola ekitaldi eta kontratu-klase guztiak antolatzea.

c) Harremanak eta lankidetza-hitzarmenak finkatzea Administrazioarekin edota beste erakunde batzuekin, publikoak zein pribatuak izan.

d) Legeen eta Estatutuen arabera, mota guztietako ekintzak gauzatzea (elkarteak, sozietateak eta fundazioak barne).

**Artículo 5.**

Al margen de los fines y actividades descritas, la Asociación para el cumplimiento de las mismas podrá:

a) Desarrollar actividades económicas legales con objeto de allegar los recursos necesarios para el normal funcionamiento de la Asociación.

b) Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos de todo género.

c) Establecer contactos o convenios legales de colaboración con la Administración u otras entidades tanto públicas como privadas

d) Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes y a sus Estatutos, pudiendo constituir, a su vez, asociaciones, sociedades o fundaciones.

**6. Artikulua**

1. Elkartearen egoitzaren helbidea honako hau da: Donostia-San Sebastián, Zorroagagaina, 11 (20.014).

2. Elkarteak beste lokal eta instalazio batzuk eduki ahal izango ditu, bai Euskal Herriaren barruan bai hemendik kanpo.

3. Helbide soziala beste leku batera aldatu

**Artículo 6.**

1. El domicilio de la Asociación se ubica en Donostia – San Sebastián, Zorroagagaina, 11, (20.014).

2. La Asociación podrá disponer de otros locales e instalaciones en el ámbito de Euskal Herria o fuera de ella.

3. El traslado y cambio de domicilio social

edo eramateko erabakia Zuzendaritza-Batzordeak hartuko du; halaber, Elkarte-Erregistroari horren berri emango dio, hurrengo Biltzar Orokorrak berretsi dezan.

**7. Artikulua**

Bere zereginak garatuko dituen lurralde-eremua ondokoa izango da: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, Espainiar Estatuko gainerako erkidegoak, eta honako estatutu hauetan jasotako helburu eta jarduerak aurrera eraman daitezkeen Europako herrialdeetan eta munduko beste edozein herrialdetan.

## II. IZENBURUA.- Erakundearen Organoak

**8. Artikulua**

Elkartea ondoko organoen arabera egituratuta dago:

a) Koiegiatuak: Biltzar Orokorra (goreneko organoa) eta Zuzendaritza-Batzordea (helbide iraunkorreko organo kolegiatua).

b) Pertsona bakarrekoak: Presidentea, Presidenteordea, Idazkaria ata Diruzaina.

### 1. Atala.- Biltzar Orokorra.

**9. Artikulua**

1. Biltzar Orokorra kuotak eguneratuta dauzkaten elkartekide guztiez osatuta dago. Bestalde, horien borondatearen adierazpide-organoa izanik, honako Estatutuen edota indarreango xedapenen arabera dagozkien gaien berri izan eta horiei buruz erabakiko du.

2. Biltzar Orokorrean egoki hartutako erabakiak lotesleak dira elkartekide guzti-guztientzat.

**10. Artikulua**

1. Biltzar Orokorraren bilkurak ohizkoak ata apartekoak izan daitezke.

2. Biltzar Orokorra gutxienez urtean behin egingo da, lehendabiziko hiruhilekoaren barruan, ota helburu izango du: Elkartearen ekimen-plan orokorra, aurreko urteari dagokion kontu-egoera eta hurrengo urteko

será acordado por la Junta Directiva, la cual lo comunicará al Registro de Asociaciones y será ratificado por la Asamblea General inmediata.

**Artículo 7.**

El ámbito territorial en el que desarrollará sus funciones comprende, la Comunidad Autónoma del País Vasco, Comunidad Foral de Navarra, el resto de comunidades del Estado Español, así como todos aquellos países de Europa y del resto del mundo donde se puedan desarrollar los fines y actividades recogidos en los presentes estatutos.

## CAPITULO II.- Órganos de la Entidad

**Artículo 8.**

La Asociación se estructura de acuerdo con los siguientes órganos:

a) Colegiados: La Asamblea General, como órgano supremo, y la Junta Directiva, como órgano colegiado de dirección permanente.

b) Unipersonales: el Presidente, el Vicepresidente, el Secretario y el Tesorero.

### Sección 1ª.- De la Asamblea General.

**Artículo 9.**

1. La Asamblea General, constituida por todos los asociados al corriente de sus cuotas, órgano de expresión de la voluntad de éstos, conocerá y decidirá sobre los asuntos cuya competencia le atribuyan los presentes Estatutos o las disposiciones en vigor.

2. Los acuerdos válidamente tomados en la misma vinculan por igual a todos sus asociados.

**Artículo 10.**

1. Las sesiones de la Asamblea General pueden ser ordinarias o extraordinarias.

2. La Asamblea General Ordinaria deberá ser convocada, al menos, una vez al año, dentro del primer trimestre, a fin de aprobar el plan general de actuación de la Asociación, el estado de cuentas correspondiente al año

aurrekontua onestea, hala nola Zuzendaritza-Batzordearen kudeaketa ere onestea, Biltzar Orokorraren norabideei jarraiki -horren kontrolpean jokatu beharko baitu Zuzendaritza-Batzordeak.

3. Ohizko Biltzarra (edota, bidezko izanez gero, Aparteko Biltzarra) egin baino hamabost egun lehenago, dagokion biltzarrari buruzko dokumentazioa bazkideen esku egongo da Elkarteko Idazkaritzan.

**11. Artikulua**

1. Blitzar Orokorrak behar adina aparteko bilkura egingo ditu Presidentearen edota Zuzendaritza-Batzordearen eskariz; edota Elkarteko bazkide guztien laurdenak -gutxienez- idatziz hala eskatuko balute. Azken kasu honetan, eskariaren arrazoiak eta helburua azalduko beharko dituzte; eta jarraian, Presidenteak bilkurarako deia egingo du eskaria egin osteko hogeita hamar egunen barruan.

2. Edonola ere, estatutuak aldatzea eta Elkartea desegitea helburu dituzten akordioak ondorio horretarako hain zuzen deitutako Aparteko Biltzar Orokorrean soil-soilik erabaki ahal izango dira.

**12. Artikulua**

Ondoko atribuzioak Biltzar Orokorrari dagozkio:

a) Zuzendaritza-Batzordea osatuko duten pertsonak izendatu edota kargutik kentzea, hala nola batzordea kontrolpean izatea.

b) Elkartearen aurrekontuak eta urteko kontuak hala nola biltzarreko aktak onestea.

c) Aparteko gastuak adostu eta elkartekideak lotesten dituzten ez-ohizko neurriak hartzea.

d) Aparteko kuotak ezartzeari buruzko erabakiak hartzea.

e) Beste elkarte batzuekin federatu edo konfederatu edo horietakoren batetik ateratzea, hala nola dagokiokeen osakera fundazionala erabakitzea.

f) Zuzendaritza-Batzordeak aurkeztuko dizkion gaiak oro erabakitzea.

anterior y el presupuesto del ejercicio siguiente, así como la gestión de la Junta Directiva, que deberá de actuar de acuerdo con las directrices y bajo el control de aquella.

3. Quince días antes del señalado para la celebración de la Asamblea General Ordinaria o Extraordinaria, en su caso, en la Secretaría, de la Sociedad estará a disposición de los socios la documentación pertinente a la asamblea correspondiente.

**Artículo 11.**

1. La Asamblea General celebrará las sesiones extraordinarias que estime necesarias el Presidente o la Junta Directiva, o lo soliciten por escrito un número de asociados que representen, como mínimo, la cuarta parte del censo total de la Asociación, indicando los motivos y fin de la misma, en cuyo caso el Presidente deberá convocarla dentro de los treinta días siguientes a la solicitud.

2. En todo caso, los acuerdos relativos a las modificaciones o cambios estatutarios y a la disolución de la Asociación deberán decidirse en Asamblea General Extraordinaria convocada, en exclusiva, al efecto.

**Artículo 12.**

Corresponde a la Asamblea General las siguientes atribuciones:

a) La designación y el cese de las personas integrantes de la Junta Directiva, así como el control de la misma.

b) Aprobar tanto los presupuestos y cuentas anuales de la Asociación como las actas asamblearias.

c) Acordar los gastos extraordinarios así como la adopción de medidas excepcionales vinculantes para sus asociados.

d) Adoptar los acuerdos relativos a la imposición de cuotas extraordinarias.

e) La federación o confederación con otras asociaciones o el abandono de alguna de ellas, así como acordar la constitución fundacional oportuna.

f) Resolver cuantos asuntos le someta la Junta Directiva.

**13. Artikulua**

1. Biltzar Orokorrerako deia -ohizkoa nahiz apartekoa izan- idatziz egin eta bileraren lekua, data eta ordua azaldu beharko dira, baita Eguneko Ordena ere. Iragarpena, berriz, hedapenik handieneko eskualdeko egunkariren batean agertuko da.

2. Deialdia egiten denetik Biltzarraren lehen deialdia egiteko finkaturiko egunera arte, gutxienez, 15 eguneko epea egongo da; halaber, egoki izanez gero Biltzarra bigarrenez biltzea, bigarren deialdi horren eguna eta ordua ere azaldu beharko dira, eta ezin izango da bataren eta bestearen artean 30 minutuko baino gutxiagoko epea igaro.

**14. Artikulua**

1. Biltzar Orokorrak, bai ohizkoak bai apartekoak, legez osatuta egongo dira baldin-eta lehenengo deialdian bertaraturiko edo ordezkaturiko elkartekideen erdiak gehi bat biltzen badira; bigarren deialdian, berriz, bazkide-kopurua edozein izan daiteke.

2. Biltzar Orokorretan parte hartzeari dagokionez, bazkideek beren ordezkapena beste edozein bazkideren esku utzi ahal izango dute. Aipatutako ordezkapena idatziz egin eta Elkarteko Idazkariaren eskuetan egon beharko du, gutxienez, bilkura egin baino 24 ordu lehenago.

3. Ordezkapena sinadura-bidez egingo da eta, edonola ere, egoki iritziz gero, hura berretsi edota modu frogagarrian alderatzeko aukera ere egongo da, Biltzarra egin osteko 30 eguneko epearen barruan.

**15. Artikulua**

Biltzar Orokorren akordioak lotesleak izango dira bazkide guztientzat eta botoen gehiengo erlatiboz hartuko dira.

**Bigarren Atala.- Zuzendaritza-Batzordea**

**16. Artikulua**

1. Zuzendaritza-Batzordea 10 kidez osaturik egongo da eta Presidenteak, Presidenteordeak, Idazkariak, Diruzainak eta sei batzordekidek eratuko dute. Denak izango dira elkartekideak.

**Artículo 13.**

1. La convocatoria de la Asamblea General, sea ordinaria o extraordinaria, será hecha por escrito, expresando al lugar, la fecha y la hora de la reunión, así como el Orden del día. Su publicación será hecha en uno de los diarios de mayor difusión de la provincia.

2. Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea en primera convocatoria, deberá mediar al menos 15 días, debiendo, asimismo, hacerse constar la fecha y hora en las que, si procediera, se reuniría la Asamblea en segunda convocatoria, sin que entre una y otra reunión pudiera mediar un plazo inferior a 30 minutos.

**Artículo 14.**

1. Las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias, quedarán válidamente constituidas en primera convocatoria cuando concurra a ellas, presentes o representados, la mitad más uno de los asociados, y en segunda convocatoria, cualquiera que sea el número de socios concurrentes.

2. Los socios podrán otorgar su representación, a los efectos de asistir a las Asambleas Generales, a cualquier otro socio. Tal representación se otorgará por escrito, y deberá obrar en poder del Secretario de la Asociación, al menos 24 horas antes de celebrarse la sesión.

3. La forma de representación será mediante firma y, en todo caso, con posibilidad de refrendo o cotejo fehaciente, si se estimare oportuno, dentro del plazo de los 30 días posteriores a la Asamblea.

**Artículo 15.**

Los acuerdos de las Asambleas Generales, vinculantes para todos los asociados, se adoptarán por mayoría simple de votos.

**Sección 2ª.- De la Junta Directiva**

**Artículo 16.**

1. La Junta Directiva estará integrada por 10 miembros y constituida por el Presidente Vicepresidente, Secretario, Tesorero y seis vocales todos ellos miembros asociados.

2. Hartuko dituzten erabakiak lotesleak izango dira Erakundeko kide guztientzat.

**17. Artikulua**

1. Zuzendaritza-Batzordeko batzordekideak Biltzar Orokorrak aukeratuko ditu ondoko baldintzak betetzen dituzten Elkarteko kideen artean:

a) Adinez nagusi izan eta eskubide zibil guztien jabe izatea.

b) Erakundean gutxienez bi urteko antzinatasuna izatea.

c) Honako estatutuotan aurreikusita dagoen bezala izendatua izatea.

2. Zuzendaritza-Batzordeko kidea izateko karguaren iraupena lau urtekoa izango da; kargua, berriz, borondatez eta askatasunez onartu beharko da eta gizarte-zerbitzuaren izaera izango du.

3. Dena dela, kargu horiek beteko dituztenak ostera ere hautatu ahal izango dira iraupen bereko denboraldirako, baldin-eta izendapeneko baldintza eta izapide berberak betetzen badituzte.

4. Heriotza, uko, kargu-gabetze, bateraezintasun edota beste edozein arrazoi dela-eta hutsik gerta daitezkeen postuak Zuzendaritza-Batzordeak berak izendatuko dituen kideen artean bete egingo dira, eta hurrengo Biltzar Orokorrari aurkeztuko zaizkio horien ordezkoak, ontzat eman edota atzera bota ditzan; hala gertatuko balitz, dagokion izendapena gauzatzeari ekingo zaio.

**18. Artikulua**

1. Zuzendaritza-Batzordearen bilkurak hilero egingo dira, opor-garaian izan ezik, baldin-eta gizartejarduerak garatzeko hala egitea beharrezkoa bada; aparteko bilkurak, berriz, Presidenteak berak iragarri edota bertoko lau kidek egindako idatzizko eskabideari jarraiki egingo dira. Kasu horretan, Presidenteak hurrengo hamar lanegunen barruan egin beharko du aparteko bilerarako deia.

2. Egin-beharreko bileretara bi aldiz jarraian edota aldizkako lau alditan justifikaziorik gabe agertzen ez direnek euren kargua utzi egin beharko dute.

2. Sus decisiones serán vinculantes para todos los miembros de la Entidad.

**Artículo 17.**

1. Los vocales de la Junta Directiva serán elegidos por la Asamblea General entre los miembros de la Asociación que cumplan los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de edad y gozar de la plenitud de los derechos civiles.

b) Tener una antigüedad mínima de dos años en la Entidad.

c) Ser designado en la forma prevista en los presentes Estatutos.

2. La duración del cargo de miembro de la Junta Directiva, aceptado voluntaria y libremente con carácter de servicio social, será de cuatro años.

3. No obstante, dichos cargos admiten la posibilidad de reelección por otros períodos iguales, siempre que se cumplan los mismos requisitos y trámites que en el nombramiento.

4. Las vacantes que se produzcan por fallecimiento, renuncia, cese, incompatibilidad o cualquier otra causa, serán cubiertas entre los asociados por designación de la propia Junta Directiva y serán sometidas para su aprobación o revocación a la primera Asamblea General que se celebre, procediéndose en este último caso a la designación correspondiente.

**Artículo 18.**

1. La Junta Directiva celebrará sus sesiones ordinarias, cada mes, excepto el que se fije como vacacional, y siempre que lo exija el desarrollo de las actividades sociales, y extraordinarias, cuando las convoque el Presidente por propia iniciativa o por petición escrita de cuatro miembros de la misma, en cuyo caso el Presidente deberá convocar la reunión extraordinaria solicitada dentro de los diez hábiles siguientes.

2. La falta de asistencia a las reuniones señaladas, durante dos veces consecutivas o cuatro alternas, sin causa justificada, dará lugar al cese en el cargo respectivo.

**19. Artikulua**

Zuzendaritza-Batzordeak honako zereginak izango ditu helburu:

a) Biltzar Orokorrean hartutako erabakiak gauzatzea.

b) Bilzarraren norabideei jarraiki eta biltzarraren kontrolpean, elkartearen administrazio- eta kudeaketa-mailako ekintza guztiak aurrera eramatea.

c) Biltzarrak onetsitako aurrekontuak gogoan harturik, Erakundearen kudeaketa ekonomikoa garatu eta emaitzak kontabilizatzea, Biltzarrak onetsi edota atzera bota ditzan.

d) Elkarteko Atal edo Sailetan garatuko diren jarduerak kudeatu, administratu eta koordinatzea. Bestalde, aurrerantzean, Elkartearen izena berdin erabiliko da honako Estatutu hauetan.

e) Biblioteka-fondoak, argitalpenak, material zientifikoa eta elkartearen ekipamendua kudeatzeko eduki-beharreko baliabideak finkatzea; eta, orobat ere urteko kontrolarenak eta Atalei denboraldi berean dagozkien akta-liburuenak.

f) Deialdia eta Blitzarraren Eguneko Ordena behar den bezala antolatzea, neurri egokiak harturik.

g) Bazkideen urteko kuotaren zenbatekoa finkatzea.

h) Proposamen eta iradokizun sozialak jaso eta horiei kasu egitea, dagokien legez bideratuak izan daitezen.

i) Beste edozein jardunibidez arduratzea (aipatutakoen artean ez balego ere), baldin-eta Elkartea gobernatu eta administratzeko jarduribideei lotuta balego.

**Artículo 19.**

La Junta Directiva realizará las siguientes funciones:

a) Ejecutar los acuerdos de la Asamblea General.

b) Realizar todos los actos de administración y gestión social de acuerdo con las directrices asamblearias y bajo su control.

c) Desarrollar la gestión económica de la Entidad, conforme a los presupuestos aprobados por la Asamblea y contabilizar sus resultados, sometiéndola a su aprobación o revocación.

d) Gestionar, administrar y coordinar las actividades que se desarrollen en las Secciones o Departamentos de la Asociación, cuya denominación se adoptará, indistintamente en lo sucesivo, en los presentes Estatutos.

e) Establecer los mecanismos necesarios de gestión de los fondos bibliográficos, de publicaciones, el material científico y equipamiento social y, asimismo, de control anual de los mismos y de los libros actuarios de las Secciones, en el mismo período.

f) Confeccionar debidamente la convocatoria y el Orden del Día asambleario adoptando las medidas oportunas.

g) Fijar la cuantía de la cuota anual de los socios.

h) Atender y ser receptora de las propuestas o sugerencias sociales dándoles el curso legal correspondiente.

i) Cualesquiera otra, no enumerada anteriormente, que sea consecuencia del ejercicio de las funciones de gobierno y administración de la Asociación.

**20. Artikulua**

1. Zuzendaritza-Batzordearen erabakiek balio izateko, nahitaezkoa izango da erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengo erlatiboz harturik egotea; eta beraz, kideen erdiek gutxienez egon beharko dute bertan.

2. Idazkariak bilkuren akta jaso eta dagozkien liburuan geratuko dira transkribatuta.

**21. Artikulua**

1. Egoki iritzitako helburuen arabera, Batzorde-Zuzendaritzak ahalmen zabalak izango ditu Elkartearen barruan Batzordeak, Atalak eta Sailak sortzeko, hala nola horiek ikuskatu edota bukatutzat emateko. Halaber, ahalmen zabalak ditu horiek guztiak ikuskatu edota emaitutzat emateko.

2. Ondorio jakinetarako beharrezkoa den guztietan, Atal eta Sailetako Zuzendariak ZuzendaritzaBatzordearen bileretan izango dira.

**3. Atala.- Pertsona bakarreko organoak**

**22. Artikulua**

Presidentea, Presidenteordea, Idazkaria eta Diruzaina Zuzendaritza-Batzordeak aukeratuko ditu bere kideen artean.

**Lehendakaria.**

**23. Artikulua**

1. Elkartea lege aurrean ordezkatzeko ardura Lehendakariak bere gain hartu eta Biltzar Orokorrak eta Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak gauzatuko ditu.

2. Lehendakariak ondoko atribuzioak izango ditu:

a) Elkarteko organo kolegiatuen bilkurak iragarri, horien buru izan eta halakoak zuzentzea; eta baita berdinketak bere kalitate-botoarekin erabakitzea ere.

b) Ekintza sozial- eta negozio juridiko-mota guztietan Elkartea ordezkatzea; dagozkion ordezkapen-aginduak hirurgarren pertsonen esku utzi ahal izango ditu, bai esparru judizialean bai esparru judizialetik kanpo.

**Artículo 20.**

1. Para que los acuerdos de la Junta Directiva sean válidos deberán ser adoptados por mayoría simple de votos de los asistentes a la misma, requiriéndose, por tanto, la presencia de la mitad de sus miembros.

2. El Secretario levantará acta de las sesiones y éstas quedarán transcritas en el libro correspondiente.

**Artículo 21.**

1. La Junta Directiva está ampliamente facultada para crear Comisiones, Secciones o Departamentos dentro de la Asociación, en función de los fines que se juzguen oportunos. Asimismo, está facultada para supervisarlas e, incluso, para clausurarlas.

2. Los Directores de Sección asistirán a las reuniones de la Junta Directiva siempre que sean requeridos a tales efectos.

**Sección 3ª.- De los órganos unipersonales**

**Artículo 22.**

Los cargos de Presidente, Vicepresidente, Secretario y Tesorero serán elegidos por la Junta Directiva de entre sus miembros.

**El Presidente.**

**Artículo 23.**

1. El Presidente asume la representación legal de la Asociación y ejecuta los acuerdos adoptados por la Asamblea General y la Junta Directiva.

2. El Presidente tendrá las siguientes atribuciones:

a) Convocar, presidir y dirigir las deliberaciones de los órganos colegiados de la Sociedad y dirimir los empates con su voto de calidad.

b) Representar a la Asociación en toda clase de actos sociales y negocios jurídicos, pudiendo delegar sus mandatos de representación a terceras personas, tanto en el ámbito judicial como extrajudicial.

c) Biltzar Orokorraren aktak, ziurtagiriak, luzaturiko eskabideak eta mota guztietako dokumentuak oro egiaztatu eta jardunbidea jasota uztea.

d) Elkartearen jarduera-plana Zuzendaritza-Batzordeari proposatu eta zereginak bultzatu eta zuzentzea.

e) Egoki hitzartutako ordainketak egiteko agintzea.

f) Premiaz konpondu-beharreko gaiak erabaki eta Zuzendaritza-Batzordeari horien berri ematea lehendabiziko bilkuran.

g) Biltzar Orokorrak eta Zuzendaritza-Batzordeak hari pasatako edota haren esku utzitako beste edozein zeregin.

**Lehendakariordea.**

**24. Artikulua**

Lehendakariordeak Lehendakariari laguntzen jardungo du eta kargua aldi batez ezin beteko balu hura ordezkatu ere egingo du. Gainera, Lehendakariak eta Zuzendaritza-Batzordeak haren esku espreski utzitako behar-adina ahalmen ere izango ditu.

**Idazkaria.**

**25. Artikulua**

Idazkariari -eta idazkaririk ezean, adinik gutxieneko Batzordekideari- ondoko zereginak dagozkio:

a) Biltzar Orokorrak eta Zuzendaritza-Batzordeak egindako bileren akta jaso eta bozketen emaitza eta hartutako erabakiak baiestea.

b) Elkarteak urtean egindako kudeaketaren Memoria idatziz jartzea, Biltzar Orokorrak hura irakurri eta onets dezan.

c) Biltzar Orokorraren eta Zuzendaritza-Batzordearen Akta-Liburuak osatu eta zaintzeaz arduratzea.

c) Acreditar las actas de la Asamblea General, las certificaciones, las solicitudes que se expidan y cuantos documentos se requieran, dejando constancia actuaría social de las mismas.

d) Proponer el plan de actividades de la Asociación a la Junta Directiva, impulsando y dirigiendo sus tareas.

e) Ordenar los pagos acordados válidamente.

f) Resolver las cuestiones que puedan surgir con carácter de urgencia, dando cuenta de ello a la Junta Directiva en la primera reunión q ue celebre.

g) Cualquier otra que se le encomiende o delegue expresamente tanto por la Asamblea General como por la Junta Directiva.

**El Vicepresidente.**

**Artículo 24.**

El Vicepresidente asumirá las funciones de asistir al Presidente y sustituirle en caso de imposibilidad temporal del ejercicio de su cargo. Asimismo, le corresponderán cuantas facultades deleguen en él, expresamente, el Presidente o la Junta Directiva.

**El Secretario.**

**Artículo 25.**

Al Secretario, y en su ausencia al Vocal de menor edad, le corresponderán las siguientes funciones:

a) Levantar acta de las reuniones, tanto de la Asamblea General como de la Junta Directiva, haciendo constar fehacientemente el resultado de las votaciones y de los acuerdos adoptados.

b) Redactar la Memoria de la gestión, llevada a cabo por la Sociedad durante el año, para su lectura y aprobación en la Asamblea General.

c) Cuidar de la formación y custodia de los Libros de Actas tanto de la Asamblea General como de la Junta Directiva.

d) Luzatutako dokumentazioaren eta material sozialaren sarrera-irteerak antolatu eta kontrolpean izatea.

e) Elkartearen artxibo nagusia zaintzea, Batzorde-Zuzendaritzaren baimenik gabe inork erabil ez dezan.

f) Elkartekideak izateko eskabideak jaso eta izapidetu eta bazkideen fitxeroaz eta Erregistro-Liburuaz arduratzea.

g) Biltzar Orokorra eta Zuzendatza-Batzordea biltzeko deiak luzatzea, dagozkien Eguneko Ordenarekin.

h) Elkarteei buruzko legezko xedapenak betetzen direla begiratzea.

**Diruzaina.**

**26. Artikulua**

Elkarteko Diruzainari ondoko zereginak dagozkio:

a) Mota guztietako diru-sarrerak bere gain hartu eta Presidenteak onetsitako kontu eta fakturak oro egitea; eragiketa horiek guztiak gauzatzeko, berriz, Presidenteak bere sinadura eskuordetu ahal izango dio beste norbaiti.

b) Mota guztietako ordainagiriak eta letra-igorpenak luzatu eta kobratzea.

c) Zuzendaritza-Batzordeari hileroko fondo-likidazioa aurkeztea, onets dezan.

d) Zuzendaritza-Batzordeari hilero izaten diren kutxa-mugimenduen berri eman eta Atal edo, Sail bakoitzean izandako ordainketa eta gastuak zehaztea.

e) Elkartearen eta Atal edo Sailen urteko diru-sarrera ata gastuen aurrekontu orokorra formalizatu eta joan den urteko kontu-egoera gauzatzea, bai bata bai bestea Biltzarrak onets ditzan.

f) Elkarteko Diruzaintzari lotutako edota

d) Organizar y controlar las salidas y entradas de la documentación que se expida y del material social.

e) Custodiar el archivo general de la Sociedad, sin que al mismo tengan acceso personas ajenas a la Junta Directiva sin autorización de ésta.

f) Recibir y tramitar las solicitudes de ingreso y llevar el fichero y el Libro-Registro de socios.

g) Extender las convocatorias para las Asambleas Generales y reuniones de la Junta Directiva con su correspondiente Orden del Día.

h) Velar por el cumplimiento de las disposiciones legales en materia de Asociaciones.

**El Tesorero.**

**Artículo 26.**

Al Tesorero de la Asociación le corresponderán las siguientes funciones:

a) Hacerse cargo de los ingresos de cualquier naturaleza y satisfacer toda clase de cuentas y facturas visadas por el Presidente, quien podrá delegar en él la firma necesaria para estas operaciones.

b) Extender y cobrar los recibos y libramientos de cualquier clase.

c) Presentar a la Junta Directiva una liquidación mensual de fondos para su aprobación.

d) Dar cuenta mensual a la Junta Directiva de los movimientos de caja correspondientes, detallando los cobros y gastos originados en cada Sección o Departamento.

e) Formalizar el presupuesto anual de ingresos y gastos general de la Asociación y de las Secciones o Departamentos, así como el estado de cuentas del año anterior para ser sometidos a la aprobación de la Asamblea.

f) Cualquiera otra relacionada con la

Zuzendaritza-Batzordeak espreski pasatako beste edozein zeregin.

**Batzordekideak.**

**27. Artikulua**

Batzordekideei ondoko zereginak dagozkie:

a) Bazkideen kezkei arreta eman eta Zuzendaritza-Batzordeari horien berri ematea.

b) Zuzendaritza-Batzordeko gainerako kideei laguntzea, Elkartea ondo administratzearen aldeko zeregin-mota gutietan.

c) Hala agindu ata eskatuz gero, Elkartea ordezkatu, zuzendaritza-karguetako lana zintzo betetzen lagundu eta, hartarako izandatuak balira, kargudunak aldi baterako ordezkatzea, Zuzendaritza-Batzordearen onespenarekin beti.

**Karguen erregimena**

**28. Artikulua**

Elkartearen karguak dohaineko zerbitzu pertsonal erregimenarenpean beteko dira; hala era, bidezko iritziz gero, Zuzendaritza-Batzordearen esku egongo da dietak eta gastuak ordaintzeko agindua ematea.

**III. IZENBURUA.- Bazkideak.**

**29. Artikulua**

1. Pertsona fisiko-juridiko eta publiko-pribatu guztiak izan daitezke Elkartekideak, hala eskatzen badute eta eskaera onartzen bazaie.

2. Pertsona fisikoen kasuan, adinez nagusiak edota 14 urtetik gorakoak izan beharko dira (azken hauek euren ordezkarien baimena izan beharko dute eta eskubide zibilen jardute osoaren jabe ere izan beharko dira, Biltzarretan hitz egiteko eskubidea izango dute baina ezin izango dute Batzordean kargurik izan). Pertsona juridikoen kasuan, Elkarteen Legearen 5.3 artikuluan eta otsailaren 12ko 3/88 Legean ezarritakoari jarraikiko zaio.

3. Elkarteko bazkide-izaeraren onarpena

Tesorería de la Asociación o que expresamente se le encomiende por la Junta Directiva.

**Los Vocales.**

**Artículo 27.**

A los Vocales les corresponden las funciones siguientes:

a) Hacerse eco de las inquietudes de los socios y transmitirlas a la Junta Directiva.

b) Ayudar a los demás miembros de la Junta Directiva en toda clase de trabajos concernientes a la buena administración de la Asociación.

c) Representar a la Asociación, cuando expresamente se le encomiende, y coayudar en el buen hacer de los cargos directivos, cuando se le solicite, y sustituirlos de forma temporal si son designados para ello, siempre con el refrendo de la Junta Directiva.

**Régimen de los cargos**

**Artículo 28.**

Los cargos de la Asociación se ocuparán en régimen de prestación personal gratuita, si bien la Junta Directiva podrá establecer, en su caso, el abono de dietas y gastos.

**CAPÍTULO III.- De los Socios.**

**Artículo 29.**

1. Podrán pertenecer a la Asociación todas aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que lo soliciten y sean admitidas.

2. En el caso de las personas físicas deberán ser mayores de edad o menores mayores de 14 años, estos últimos con autorización de sus representantes y hallarse en pleno ejercicio de sus derechos civiles con derecho a voz en las Asambleas y no podrán tener cargos en la Junta. En el caso de personas jurídicas se estará a lo dispuesto en el art. 5.3 de la Ley de Asociaciones y en la Ley 3/88 de 12 de Febrero.

3. Para ser admitido como socio de la

lortzeko, nahikoa izango da bazkidegaiak hala eskatzea idatziz Zuzendaritza-Batzordeari, honek onarpena erabaki dezan. Onartua izan ezik, gorako helegitea aurketu ahal izango du Biltzar Orokorraren aurrean.

**30. Artikulua**

Bazkide-mota hauek izango dira:

a) Bazkide Osoak: Elkartearen jarduerarik garrantzitsuena euren gain hartuta daukaten pertsona fisikoak dira –Zuzendaritza-Batzordeak onartu ezezik, kuotaren ordainketa ere egunean daukatenak.

b) Jarduneko Bazkideak: honako Estatutu hauetako 38. artikuluan eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Atal edota Sailetariko batean izena emanda daukatenak dira.

c) Bazkide Urgazleak: izaera horren pean Elkartearekin bat egiten duten Erakundeak dira (publikoak zein pribatuak), euren laguntza ekonomikoa urteko kuota berriztagarrien bidez eta borondate osoz ematen dutenak, edota hitzarmen formalen bidez Elkartearen helburuak lortzen laguntzen dutenak.

d) Ohorezko Bazkideak: Zientzien alde meritu nabarmenak egin edota Elkartearen helburuak garatzen eta babesten gogor ahalegintzeagatik Biltzar Orokorrak Zuzendaritza-Batzordearen eskariz saritutakoak dira. Bazkide-klase honek ez du inongo kuota-motarik ordaindu behar.

**31. Artikulua**

Bazkideek orok izango dituzte ondoko eskubideak:

a) Elkarteko Idazkaritzan dagoen zerrendaren bitartez, Elkarteko gainerako kideak nortzuk diren jakin, eta Zuzendaritza-Batzordeari idatziz eskatuz gero, kontu-egoeraren eta jardueren garapenaren berri izatea, datuak babesteari buruz indarrean dagoen legea kontuan harturik beti ere.

Asociación bastará con que el aspirante lo solicite por escrito a la Junta Directiva, quien resolverá sobre su admisión, pudiéndose recurrir en alzada ante la Asamblea General en el supuesto de su inadmisión.

**Artículo 30.**

Los socios serán de las siguientes clases:

a) Socios de Número: son las personas físicas sobre quienes descansa la actividad esencial de la Asociación que, además de ser admitidas por la Junta Directiva, están al corriente del pago de la cuota.

b) Socios Activos: son aquellos que se hallen inscritos en una de las Secciones o Departamentos de conformidad con lo establecido en los artículos 38 y siguientes de los presentes Estatutos.

c) Socios Colaboradores: son las Entidades, públicas o privadas que se adhieran con tal carácter y, que prestan su apoyo económico por medio de cuotas anuales y renovables, fijadas voluntariamente o, que contribuyan mediante acuerdo formal a los fines de la Asociación.

d) Socios de Honor: son aquellos a los que la Asamblea General, a propuesta de la Junta Directiva, haya conferido tal distinción en atención a sus relevantes méritos en pro de las Ciencias o por haberse distinguido en el desarrollo o apoyo de los fines de la Asociación. Esta clase de socios se halla exenta del pago de cualquier tipo de cuota.

**Artículo 31.**

Todo socio tendrá los siguientes derechos.

a) A conocer la identidad de los demás miembros de la Asociación, mediante el listado existente en la Secretaría de la Asociación, con arreglo a la legislación vigente sobre protección de datos, así Como el estado de cuentas y el desarrollo de su actividad, previa solicitud escrita a la Junta Directiva.

b) Honako Estatutu hauen arabera, Elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea, hautagai nahiz hautesle moduan.

c) Biltzar Orokorretan ahots- eta boto-eskubidea izatea; eta ondorio horretarako, beste bazkide baten esku euren ordezkapena uztea, honako Estatutu hauetan ezarritakoarl jarraiki.

d) Elkarteak eta Estatutuak arautzen dituen Legearekin bat ez datozen akordioei eta jarduerei (Elkarteko organoek hartutakoei, alegia) aurka egitea. Horretarako, berrogei egun naturaleko epea izango du, bilkura edota bilera egiten den egunetik kontatzen hasita (bileran parte hartzea eskubidez badagokio ere, berdin dio halere parte hartzen duen ala ez); edota bestela, aurka egin-beharreko akordioaren edukia jakinarazten zaionetik edota horren berri izateko aukera ematen zaionetik kontatzen hasita.

e) Elkarteko organoen aurrean eskabideak eta kexak idatziz aurkeztu, antolatzen diren ekitaldi sozial eta kolektiboetan parte hartu, eta bazkide guztien esku jarritako elementuez gozatzea– kasu bakoitzean xedatuko denaren arabera.

